



KUTXA Enplegatuen Elkarteak	Xendazaletasun atala
126-127 zka. Pirinioak (Izaba)	Chinebral de Gamuetari itzulua Linzolako Lapakizari itzulua /2017-9-23/24

Xendazale adiskideok:

Zenbait urtez bertaratu gabe egon ondoren, berriro itzuliko gara Nafarroako txoko kutun honetara. Eta horretarako bi ibilbide zirkular aurkezten dizkizuegu, mendizaleentzat oro har oso ezagunak diren bi menditara. Larunbatean Chinebral de Gamuetara eta igandean “Paki” ospetsura, Linzolako Lapakizara, alegia.

Gamuetak Atxeritoren HMan dauden gailur batzuk dira, Gamueta eta Atxerito haranen gainean daudenak, gailur, tontor eta mendi-lepoen sare handi bat eratuz. Hemen daude Foyas de Gamueta, gure ibilbidetik oso gertu, Gabatxoan Gorreta, Mallo Gorreta, etab. Inguru hau osatzeko Kinboa-Petraficha bikotea dago, hegoalderago, leun eta belartsuagoak Zuriza aldera eta malkartsuagoak Atxeritorantz.

Ibilbideak denetik du, hasieran larre edo bazkalekuak, eta gora egin ahala harkaitz gehiago. Igoera bizia Gamueta leporaino, eta han ezkerretara jo behar da gainera iristeko eta Chinebral de Gamueta mendi dotorearen gailurreraino joateko. Ikuspegi paregabeak eskainiko dizkigu mendi honek. Jaitsiera zerra luzean zehar egingo dugu, lehen zatia harkaiztsua da, eta gero zati belartsuagoa; Plana de Diego, Hartzaren Igarobide eta Zaldiaren Igarobidetik pasako gara, hau amaieraren ateetan, Linzako aterpea dagoen zabaldian.

Eta iganderako zerbait suabeago eta laburragoa. Linzako Aterpetik irtengo gara, eta Hiru Errege Mahaira doan bide ibilia hartu eta Linzako lepora iritsiko gara: bidegurutzetako honetatik Petretxema, Mahai, Ukerdi eta Lapakiza-ra joan daiteke. Hemen ezkerretara bira egingo dugu, eta gero muino-bizkar belartsua igotzen hasiko gara Linzolako Lapakizako postontziraino bertaraino eramango gaituelarik.

Ikuspegi oso ederrak norabide guztietan. Eta gero gailur luzean aurrera Artaparreta leporaino, eta han jaitsiera hasiko dugu basoan behera Linzako Aterpearen inguruetaraino, bertan amaituz ibilaldi eder hau.

Animo mendizaleok, natura zain dugu eta !!!

Ibilbidea: Chinebral-i itzulua / Lapakizari itzulua.

Beharrezko denbora	6,30/5,00 ordu
Goranzko desnibel metatua	1.185/1.185 metro
Beheranzko desnibel metatua	790/790 metro
Zeharretara egin beharreko distantzia	13.720/8.135 metro
 Ingurua	2.1
 Orientazioa	3.1
 Joan-etorria	2.1
 Esfortzua	4.3

Irteera-lekua	Bilbo plaza (17/24 Bus galelekua) eta Pio XII.aren plaza (24/27 Bus galelek.)
Aurkezteko ordua	16:20 (Bilbo plaza) eta 16:30 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua:	16:30 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	Isaba hotela ***
Prezioa	170 euro

Izena emateko azken eguna: 2017-7-12ko 12:00etan

Oharra: Ez badago gutxieneko parte-hartzaile kopururik, irteera bertan behera geratuko da.

Izen-emateak egiteko: Alberto Lahuerta (656-721.208/Senderismodad@gmail.com) eta José Ignacio Acuña (943-31.02.52/joseig15@gmail.com).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña

